

# “Txikitan National Geographicen ikusitakoa aurrez aurre ezagutzeko aukera izan dut”

Ana Galarraga Aiestaran • Elhuyar Zientzia • Argazkia: EHU

**Ainhoa Magrach González**  
Ekologoa



## Ainhoa Magrach González

Berango, 1982.

- EHU**n Biologian lizentziatu ondoren, Ekologian doktoratu zen** Santiago de Compostelako Unibertsitatean.
- **Ikasketa Aurreratu**etako **Mediterraneoko Institutuan** izan zen ikertzen, eta, jarraian, James Cook Unibertsitatean (Australia), ETHn (Suitza) eta Doñanan (Espainia).
- Gaur egun BC3n dago, Leioan, baina laster Erdialdeko eta Ipar Amerikara joatekoa da, **Leonardo beka** bati esker.

Ainhoa Magrach Gonzálezek *National Geographic* aldizkariari zor dio naturarekiko maitasuna eta esploratzeko grina. Haren esanean, familian ez zegoen ikertzailearik, baina txikitatik liluraz ikusten zituen aldizkarian azaltzen ziren istorioak eta argazkiak, eta, handitan halakoak bizitzeko gogoia piztu zioten.

Ez da harritzekoa, beraz, Biologia aukeratu izana unibertsitateko ikasketak hasteko garaian, eta, laugarren mailan, beka bati esker, Ekologia sailean hasi zen lanean. "Orduan, asmatu nuela sentitu nuen", dio. Geroztik, horretan dabil buru-belarri: Biologian lizentziatu zen, Ekologian doktoratu, eta Ekologia-ko gaiak ikertzen dihardu, klima-aldaketa ikertzeko BC3 zentroan.

Tesian, basoak zatitzearen eragina ikertu zuen: "Nekazaritza, eraikuntza, industria eta halako jardueretarako basoa zatitzeak zer ondorio dituen ikertzeko, ia urtebete eman nuen Chiloé uhartean (Txile), hegaztien, ugaztunen eta landareen laginak biltzen", gogoratu du.

Handik ateratako ondorioak beste baso batzuetara estrapolatu daitezkeela azaldu du, eta hori frogatzeko aukera izan zuen, doktoretza-ondorengoko ikerketan Australian, Borneon eta Brasilen izan baitzen: "Antzeko ereduak ikusi genituen leku haietan ere".

### Txanponaren bi aldeak

Magrechek aitortu duenez, hori dena ikertzeko aukera izatea "amets baten antzekoa" izan da. "Egin kontu: txikitik *National Geographic*-en ikusitako basoa aurrez aurre ezagutzeko aukera izan dut. Baina,aldi berean, hondamendiaren lekuko izatea ere egokitu zait eta hori benetan latza da". Behintzat, ikerketa-

lanaren eta komunikazioaren bidez, ahal duen neurrian, bere aletxoak jarri duelakoan dago.

Suitzan ere izan da, ETH unibertsitatean. "Hango landa-lana Indian egiten nuen. Gure helburua zen, kafea landatzen den lekuetan, ekoizten jarrai zezatela, baina basoak galdu gabe. Zerbitzu ekosistemikoak ziren ardatza: basoan bizi diren intsektuak (zehazki erle erraldoi bat) funtsezkoak dira kafearen polinizazioan. Onura hori neurtzen aritu ginen, eta, ekoizleei emaitzak aurkeztu genizkienean, nahiko harrera ona izan genuen. Azken finean, haiek inork baino hobeto dakite zer lan egiten duen erle horrek, baina, zenbakitan ikusi zutenean, ohartu ziren benetan komeni zitzaizela basoa zaintzea".

Suitzan pare bat urte egin ondoren, polinizatzaileekin ikertzen jarraitu zuen, Doñanan. Garai hartan haurdun zegoen, eta pixka bat lasaiago ibiltzea erabaki zuen. Izan ere, Magrechen arabera, ez da erraza amatasuna eta ikerketa-lana bateratzea. "Nahitaez, ama izatean zure ibilbide zientifikoa mozteldu egiten da, eta ez dago nahikoa neurririk beste lankideekiko sortzen den desabantaila orekatzeko".

Edonola ere, ez du egonean egoteko asmorik. Hain zuzen, Leonardo beka bat jaso du komunitate batean espezie bat galtzeak eragiten duen ondorioa ikertzeko: "Esperimentu natural bat izango da, bai baitago kolibri bat, Mexiko eta Alaska artean migrazioen duena. Hortaz, ekosistema jakinetan sartu eta atera egiten da, eta aldagai horrek ekosistemaren eragiten duen aldaketa ikertuko dut". Horretarako, kolibriari jarraituko dio, Mexikotik hasi eta Alaskaraino, *National Geographic*-en ikusten zituen erreportajeen antzera. ●



Elkarrizketa osoa  
webgunean



Kultura  
Zientifikoko Katedra  
Cátedra  
Cultura Científica

UPW/EHU Kultura  
Zientifikoko Katedraren  
lankidetzan egindako atala.